

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko abenduaren 11. IX. urtea. 2.448. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Etorkinen errealitateak gerturatuko ditu Mundu bat Tolosaldean egitasmoak

Tolosan eta Alegian izango dira Mundu bat Tolosaldean egitasmoko jarduerak; eskualde osoari zuzendutako ekitaldiak dira, eta hilaren 29ra bitartean izango dira

Tolosaldera bizitzera etorri diren hainbat jatorritako pertsonen errealitatea ezagutzeko eta erlazionatzeko guneak sortzea da egitasmoaren helburua 02



Kultura arteko topaketan beren alea jarri dute eragile guztietako ordezkariak izan ziren, atzo, aurkezpenean. I. URKIZU

Jon Jaunarena Pilotaria

### «Txapela beti ikusten duzu arriskuan, eta horrela izan behar da»

Bigarren mailako lau t'erdiko txapela jantzi du 07

### Patxi Ezkiaga eskualdeko EAJaren erreferentia hil da

Atzo goizean hil zen tolosarra; alderdikideek bere abertzaletasuna nabarmendu dute 03

### Jende ugari bildu du Tolosako Txuletaren Festak

Asteburua jendez lepo izan da; aeromodelismoa eta itsasmodelismoa ere izan dira 04

#### Txapelketa bukatu zaie Zeberio eta Aizpuruari

Binakako txapelketako finalerdietatik kanpo geratu dira bi erremontistak 07

#### Giro ona nagusi, Berrobiko frontenis txapelketan

Emakumezkoen parte hartzea handitu dela nabarmendu dute 06

#### Agirre elite mailako Napar Palako finalerdietan

Leitzarrak eta Bordagaraik Arozena-Irazustabarrena garaitu dituzte 07

Egin HITZAren harpidedun...

...abenduaren 31 baino lehen eta jaso  
Mahala baserriko  
produktuez osatutako  
saski ederra...



...opari

eta...  
... HITZAren harpidedunen artean  
PORTUGALEN egiteko  
bi pertsonentzako zirkuitua  
zozkatuko dugu

OVER Urraki  
Bilakaera eduzko  
[www.urrakihitza.com](http://www.urrakihitza.com)

hurremanetarako: 902 82 02 01 / [harpidedun@hitza.info](mailto:harpidedun@hitza.info)

hitza



Tolosako udaletxeko pleno aretoan izan zen egitarauaren aurkezpena. I. URKIZU

## Hainbat jatorritako pertsonen errealitatea ezagutzeko egitaraua

Tolosan eta Alegian izango dira Mundu bat Tolosaldean egitasmoa jarduerak, hilabete osoan zehar

**Itzea Urkizu** Tolosa

Mundu bat Tolosaldean egitasmoa aurkeztu dute, Tolosako udaletxeko pleno aretoan. «Azken urteotan Tolosaldera bizitzera etorri diren hainbat jatorritako pertsonen errealitateak ezagutzeko, eta guztiok erlaziozatzeko guneak sortzea» izango da helbururik behinena, Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun teknikari Kristina Moralesek azaldu duenez.

Kultura arteko topaketa hauen aurkezpena, beren alea jarri duten eragile guztietako ordezkariak bertaratu dira: Tolosaldea Garatzen agentziako lehendakari eta Tolosako alkatea Ibai Iriarte; Alegiako Udaleko Euskara eta Kultura zinegotzia Nati Murua; Jatorri elkarteko Saad Malec; SOS Arrazakeria elkarteko Stijn

Callens eta Lucia Arias; Lita arafu-Elkar ezagutzeko elkarteko Thamer Birawi; Identibuzz Tolosaldea proiektuko Tarana Karim, Munaim Chemsí eta Larbi Bouhadou; Baraka Taldeko Idoia Sanchez; Ereite Elkarteko Rosalia Fierro, eta azkenik, Banaiz Bagara elkarteko Petra Elser.

Ibai Iriartek, «egitasmo indartsua» dela azaldu du, eta elkar ezagutzearen garrantzia nabarmendu: «Eskualdean bizi garen guztiok osatzen dugu Tolosaldea, eta etorkinak gizarteratzen lagundu behar dugu».

### Munduko kultura, bertan

Joan den astean hasiziren, kultur topaketako jarduerak, Jatorri elkartearen eskutik. Hezkuntzaren esparruan aniztasuna kudeatzeko bideen inguruko bi hitzaldi antolatuta zituzten, eta etorkinen eskola-porrota ere aztergai izan zuten: «Eskoletara sartzea kostatzen da, eta familia guztien parte hartzea oso garrantzitsua da», azaldu du Saad Malec-ek.

SOS Arrazakeriak, bere aldeetik, bertako eta kanpoko familiek elkarrekin bazkaltzea helburu

zuen Bizilagunak proiektuaren inguruko erakusketa antolatuta du Alegiako kultur etxean, abenduaren 21era bitarte.

Halaber, dokumentala eskainiko dute, bihar, Tolosako kultur etxean, 19:00etan. *Compañeras de viaje* izena du filmak, eta besteak beste, beren familiak eta herriak utziz, adineko pertsonak eta haurrak zaintzera hona etorritako emakumeen bizitza kontatuko du dokumentalak.

Ikus-entzunezkoekin jarraituz, eta Tolosako zine klubeko egitarauaren barruan, *La pequeña Venecia* filma ikusgai izango da, Leidorren, abenduaren 20an. «Oso kritika ona» duela nabarmendu du Moralesek, eta kultura desberdinetako gizon eta emakume baten maitasun istorioak gidatuko du hari nagusia.

Mundu bat Tolosaldean egitasmoan, islama eta musulmanen bizimodua gertuagotik ezagutzeko aukerarik ere izango da, Lita arafu-Elkar ezagutzeko elkarteak, Tolosako mezkita teak zabalduko baititu, herritarrentzat. Thamer Birawik «integraztea beste biderik ez» dutela azpima-

rratu du: «Tolosan gaude, eta badakigu zerbait eman behar diogu Tolosari, egunero hartzen baitugu zerbait Tolosatik». Mezkita bisitatu nahi dutenek, 686 97 19 62 telefonora deitu beharko dute, hitzordua aurretik zehazteko.

Ahozko literaturari tartea egin dio, munduko hamaika txokotako kultura protagonista izango

duen egitarauak. Horrela, Baraka elkarteak, *Nasrudin eta bere astoa* ipuin arabiarra kontatuko du, arabieraz eta euskaraz, hilaren 19an, Alegiako kultur etxean; ikasturte honetan, Tolosan, Ibarren eta Alegian egin dute jada kontakizuna, eta helbururik behinena «atzerritar gazteen inguruko estereotipoak apurtzea» izango da. Aipatzekoa da, haurrei nahiz gurasoei zuzendutako saioa izango dela.

Herritarrek eurek sortutako lanak ere protagonista izango dira, Identibuzz Tolosaldea proiektu-

### Hilaren 29ra bitarte luzatuko dira, eskualde osoari zuzendutako jarduerak

tuak, eskualdeko kultura aniztasuna islatu nahi izan baitzuen, mugikorren bitartez grabatutako bideo txikien bitartez. Abenduaren 18an, bideo guztiekin osatutako proiektioa eskainiko dute Topic zentroko aretoan, 19:00etan. Proiektuko arduradunetako bat da Tarama Karim, eta «errepikatze moduko esperientzia» izan zela azpimarratu du.

Azkenik, eguberrien inguruan bi jardura izango dira. Azoka berezian postua jarriko du Ereite elkarteak, eta hainbat jatorritako gozokak dastatu ahal izango dira. Era berean, abenduaren 29ko kantu jiran, hainbat atzerritarrek parte hartuko dute, Banaiz Bagara elkartearen eskutik.

### ↓ Egitaraua

#### ABENDUAREN 21ERA BITARTE

■ Bizilagunak erakusketa Alegiako kultur etxean.

#### ABENDUAK 12, BIHAR

■ 19:00. *Compañeras de viaje* dokumentala Tolosako kultur etxean.

#### ABENDUAREN 17TIK 20RA

■ Lita arafu Ezagutzeko Elkartearen eskutik, Islama eta musulman kultura ezagutzeko aukera, aurrez hitzordua hartuta.

#### ABENDUAK 18, ASTEARTEA

■ 19:00. Identibuzz Tolosaldea bideoaren aurkezpena Tolosako Topic zentroko aretoan, doan.

#### ABENDUAK 19, ASTEAZKENA

■ 18:00. *Nasrudin eta bere astoa* ipuinaren kontaketa arabieraz eta euskaraz, Alegiako kultur etxean.

#### ABENDUAK 20, OSTEGUNA

■ 19:15/21:45. *Pequeña Venecia* filma Tolosako Leidor aretoan, zine klubaren barruan.

#### ABENDUAK 22, LARUNBATA

■ Gabonetako azoka berezian *Gozo anitzak* izeneko postua jarriko du Ereite elkarteak.

#### ABENDUAK 29, LARUNBATA

■ 12:00. Tolosa Kantari elkarteak antolatzen duen kantu jiran parte hartuko dute hainbat jatorritako herritarrek, euskaraz abestuz, Banaiz Bagara elkartearen eskutik. Tontokaletik abiatuko dira.

### ↓ Iragarki laburrak

#### SALGAI EDO ALOKAIRUAN

**Txakurkumeak.** Arratoi txakurkumeak saltzen ditut. Interesa duen edonork, dei dezala 618 47 09 86 telefono zenbakira.

**Ile apaindegia.** Villabonan, ile apaindegia saldu edo alokatu nahi dugu. Interesa duen edonork, 630 09 90 92 telefono zenbakira deitu behar du.

**Autoa.** Citroen Berlingo XTR

saltzen dugu, 2008. urtekoa. Aukera ezin hobea da. Interesa duen edonork, dei dezala 635 20 30 56 telefono zenbakira.

#### LAN BILA

**Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako: etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua esbakiratu deitu behar du. 943 696882 / 606 521992.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



'Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza' egunkariak 2006an egin zion elkarrizketa, Tailsako kudeatzailea zen orduan. MADDI SOROA

# EAJren erreferente nagusienetakoa zen Patxi Ezkiaga Ormazabal hil da

Tolosarra atzo goizean hil zen, 55 urte zituela; alderdikideek bere abertzaletasuna nabarmendu dute

**Asier Imaz** Tolosa

Patxi Ezkiaga Ormazabal tolosarra atzo goizean hil zen, minbi-ziak jota, 55 urte zituela. Azken hamarkadetan, Eusko Alderdi

Jeltzalearen erreferente nagusienetakoa izan zen Ezkiaga, Gipuzkoa eta Tolosa mailan. Hileta elizkizuna gaur egingo diote, Santa Maria parrokiaren, 19:00etan. Gorpua Oria beilatokian egongo da, 12:45ak arte.

Azken aldian, gaixotasunaren aurka borrokan ibili arren, ez zuen alderdikideekin egoteko aukerarik alferrik galtzen. Eusko Legebiltzarreko azken hauteskundeetan, adibidez, Iñigo Urkulluren Tolosako hitzaldian egon

zen. Bertan, Joxe Gurrutzagarekin hitz gutxi batzuk gurutzatzeko aukera izan zuen. Biak Tolosako udaletxetik ezagun zaharrak ziren. Gurrutzaga alkate zen garaian, Ezkiaga oposizioan zegoen, eta hika-mika bat baina gehiago izan zituzten elkarren artean; EAJren kide batek gogoratzen duen bezala: «bi ahari». Politika munduko hika-mika horiek, ordea, Gurrutzagak berak onartzen duen bezala, 90. hamarkada hartan gelditu ziren.

Patxi Ezkiaga Ormazabal oso abertzalea zela diote alderdikideek, eta abertzaleen arteko batasunaren defendatzailea: «Horrez gain, demokrazia garaian Tolosako EAJren oinarria izan da, udal-letxean egon garenean lan handia eginaz».

Joseba Egibar EAJren Gipuzko Buru Batzarreko kideak oso maitea zuen Patxi Ezkiaga, bere laguntzaile nagusienetakoa izan zela. Aurtan, GBBn presidente hautatu ondoren, Egi-

## ↓ Ibilbide politikoa

- **1987-1990.** Eusko Jaurilaritzako Gazteria eta gizarte ekintza-zuzendaria.
- **1987-2000 eta 2004-2011.** EAJko Gipuzko Buru Batzarreko kidea.
- **1991-1999.** Tolosako EAJren zinegotzia.
- **2003-2007.** Lizartzako EAJren zinegotzia.
- **2000ko hamarkadan, hainbat urtetan.** Tailsa, Tolosaldeko Apattaerka Industria Lurra SA-ko kudeatzailea.

barrek hitzaldian bere ondoan egondako lagun aitorza egin zuen, eta batez ere, Ezkiaga aipatu zuen, 1987tik zuzendaritzan kide izan zuelako.

Urte haietan, Eusko Jaurilaritzako Gazteria eta gizarte ekintzako zuzendaria izan zen. 90. urtean utzi zuen ardura, buru belarri GBBn aritzeko. Urtebetera, Tolosaldeko zinegotzi aukeratu zuten.

Ibilbide honetan Joseba Egibar alboan izan zuen Ezkiagak, eta Egibarrek, 2003an Lizartzan alkate kargua hartu zuenean, Ezkiaga ondoan izan zuen, zinegotzi moduan. Urte hauetan, Tailsa, Tolosaldeko Apattaerka Industria Lurra SAREN kudeatzailea izan zen.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak, Tailsako arduradun zela, 2006an egin zion elkarrizketa. Bertan, eskualdeko ekonomia inguruko kezka agertzen zuen, bere aldeko apustua biderkatu behar zela aldarrikatuz. Apatta industrialdeak sorrerako urte haietan izan zuen erantzunarekin harro agertzen zen Patxi Ezkiaga, eta zabalkuntza bidean, lanean jarraitu beharra zegoela aldarrikatzen zuen.

## ↓ Erreakzioak

### Jokin Azkue

Alderdikidea

«Galera oso nabarmena izan da. Tolosako EAJn zutoin garrantzitsuenetakoa zen azken urteotan, baita lurralde mailan ere. Tolosako Udalarri begira, oso garrantzitsua izan da bere ekarpena. Kasu askotan, gure iparra izan da, udalaren ezagutza teknikoan eta eguneroko jardunean, eta baita ildo politikoari dagokionean ere».

«Oso-oso abertzalea zen, eta bere nahien barruan, abertzale guztien batzea zegoen. Hau oso garbi zuen, eta aurrera ateratzeko bidea hori zela uste zuen. Horren alde borroka asko egin zuen, eta baita sufritu ere».

«Azken urteotan gertatutakoa, eta EAJren su etenaren ondorioz sortutako giroa, ilusio han-

diz bizi izan zuen. Denok ematen ari ginen urratsekin, eta denborak ekarriko zuenarekin, oso ilusionatuta zegoen».

«Batzokian batzarrak egiten genituenean, amaitu eta gero, kontu-kontari aritzen ginen. Era guztietako kontuak ateratzen ziren, eta garai bateko istorioak eta hipzide izaten zituen berak. Alderdi kideen arteko garai bateko gauza bitxiak kontatzeko ohitura zuen, eta horrekin pozik ibiltzen ginen».

### Begoña Tolosa

Alderdikidea

«Espero izan arren, etortzea nahi ez duzun albistearen jaso duguna».

«Tolosako abertzaletasunaren munduan, erreferentzia izan da, eta ez Batzokiaren barruan bakarrik. Demokrazia hasi zenez

geroztik, orain arte, hala izan da guretzat».

«Zintzoa, prestua eta fina zen, eta hitzeko gizona. Euskaldun zintzoa zen».

### Antton Izagirre

Ezker abertzaleko kidea

«Azken urte hauetan, EAJk eskualdean izan duen erreferentzia publikoena izan da. Alderdi gizona izan da, eta EAJren egiturei lotua ezagutu dugu urte hauetan guztietan».

«Eztabaidetan eta bere ideien defentsan, oso zorrotza eta zuzena, eta bere lerro politikoaren defendatzaile irmoa zen. Gizaki politikoa izan dela esango nuke. Izan ditugun desberdintasun guztien gainetik, nire begirunea adierazi nahi dut. Une zail hauetan, jaso beza bere sendiak eta EAJko sendi politikoa, gure sa-

minaren adierazpena eta bere sarkada zintzoa».

### Joxe Gurrutzaga

Tolosako alkate ohia

«Bospasei urtetan aritu nintzen udalean berarekin. Ni 1987tik 1999. urtera bitarte izan nintzen alkate, eta tarte horretan bera ere zinegotzi izan zen».

«Nahiko istilu izan genuen batak bestearekin. Oposizioko alderdian zegoen bera, eta oposizioan zaudenean, hori egiten da. Gero, ordea, horiek guztiak ahaztu genituen, eta elkarrekin ondo moldatu izan gara; politika alde batera utzita, ondo moldatzen ginen».

«Umoresua zen oso. Gainerakoan, oso politikaria zen, bere alderdikoa beti ere. Guztiaren jakinarekin gainean izaten zen, beti. Iñigo Urkullu Tolosan izan

zenez, Eusko Legebiltzarreko azken hauteskundeetan, berarekin egoteko aukera izan nuen. Nik zorionak eman nizkion bere alaba ezkondu zelako, eta hizketan aritu ginen; oso denbora gutxi izan zen».

«Anekdotak asko, guztia istilua eta buila baitzen gure artean, garai hartan. Udaltzaren bilkuretatik kanpo, egunkarietan ere izan genituen eztabaidak batak bestearekin, eta hika-mikan ibiltzen ginen garai hartan, gehiegi behar bada. Bakoitza bere aldera tiratzen zuen. Nik, alkate gisa, nire ideiak eta nire aldarmenean nituen zinegotzietan defendatu behar nituen. Eta bera ere, oso gogorra zen bere ideiak defendatze horretan. Lan handia egiten zuen bere alderdian, eta EAJren oposizioetik lan gehien ematen zidana zen».



# Ekitaldiz beteriko asteburua, Tolosan

Ostegunetik igandera bitarte, askotariko hamaika ekitaldi izan dira, eta jende ugari erakarri dute

## Irigo Terradillos Tolosa

Ekitaldiz beteriko asteburua izan da iragan berri dena Tolosan. Tolosako Udalaren eta Tolosa&Co merkataria eta ostalarien elkartearen eskutik Txuleta-ren Festa izan da ostegunetik igandera, adin eta gustu guztietako hamaika ekitaldirekin, eta eguraldiak gutxi lagundu arren, herritar nahiz kanpoko, jende ugari parte hartu du batean zein bestean.

Ostegunean ezohikoak diren hainbat ekitaldi izan ziren. Berezubi estadioan aeromodulismoa eta itsasmodelismoaz gozatzeko aukera izan zen gaztetxo eta ez hain gaztetxoentzako. Halaber, trenez herrigunea zeharkatzeko aukera izan zen, eta nahi zuenak mokadutxo hartu ahal izan zuten Zerkausian.

Zerkausian bertan, urteroko Txuleta-ren Festaren barruan, bazkari eta afariak eskaini dituzte, herriko erregien eskutik, ostiralek igandera. 140-150 lagun inguru izan dira bazkaltzen, eta zertxobait gutxiago afaltzen. Herritarrek eta eskualdekoek edota kanpotik bereziki hitzordu honetara etorriak, denetarik topa zitezkeen.

Aurtengo berrikuntza, bestalde, Euskal Herria plazan larunbatean eginiko festa izan da. Goiz osoan ganadu azoka izan zen bertan, trikiti doinuek alaiturik, eta sagardo dastaketa ere egin zuten, arkupeetan. Jai giroak herri bazkarian jarraitu zuen, eta festa biribiltzeko hiru idi pareren arteko dema izan zen ikusgai arratsaldean. Hori ere, ezohiko ikuskizuna izaki, jende ugari gerturatu zen plazara ikustera.

Bada, bateko eta besteko ekitaldiek bultzatuta, jende ugari izan da Tolosan egunotan, bai udalak bai eta merkatariek zuten bizitasuna emateko xedea betez.



Trikiti doinuek alaitu zuten Euskal Herria plaza larunbat goizean. Ganaduak jende ugari erakarri zuen, batez ere, ikusgai zen handienak. IT.



Zerkausian kanpoko nahiz bertako jende ugari izan zen bazkaltzen eta afaltzen. Idien arteko dema egin zuten Euskal Herria plazan. IT.



harpidedunak **TXOKOA hitza**



Zozketan parte hartzeko delitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Abenduak 19 • Asteazkena  
20:00  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
**Cai Zaragoza**  
saskibaloia partida

→ **Laburrak****Merkatu Solidarioako materiala biltzen ari dira**

**IBARRA** › Ibarrik Misisio Taldeak Merkatu Solidarioa jarriko du abenduaren 16tik 23ra bitarte, Ibarriko plazan dauden parrokien lokaletan. Bada, aste honetan, bertarako materiala jasotzen eta guztia antolatzen egongo dira, lokalean bertan, 17:00etatik 20:00etara. Nahi duen orok lagundu dezake, bai merkatua antolatzeko, bai eta bertan salduko den materiala eramaten. Misisio taldeak adierazi dutenez, materiala askotarikoa izan daiteke: arropa, liburuak, diskoak, apaingarriak...

**EH Bilduren hitzaldia, bihar, udaletxean**

**LEITZA** › EH Bilduren *Nafarroa, oraina eta geroa* hitzaldia izango da, bihar, 18:30ean, Leitzako udaletxeko batzar aretoan. Aitziber Sarasola parlamentaria izango da hizlaria. EH Bilduk azaldu duenez, Nafarroako emakume eta gizonek eskatzen duten aldaketaren motorra izan nahi du. «Nafarroako egoeraren gainean dugun ikuspegia azaldu eta aurrera begirako apustuak herritarrei azaldu nahi dizkiegu, nafarrekin harremanak estu mantentzeaz batera». Hala, nafarren ikuspegi eta iritzia jaso nahi dituztela adierazi dute, euren lanketa politikoan txertatzeko.

**Loatzok kontzertua emango du lurreamendin**

**TOLOSA** › Loatzok musika eskolako ikasleek kontzertua emango dute bihar, lurreamendi egoitzan. 17:00etan hasiko da, eta nahi duen oro dago gonbidatuta.

**Everesterako lehen euskal espedizioaz hitzaldia**

**TOLOSA** › Txomin Uriarteren eskutik *Tximist, 1974ko Everest espedizioaren inguruko hitzaldia* izango da bihar, Tolosaldeko Bidaierien Txokoa, 20:00etatik aurrera. Everest mendira egin zen lehen euskal espedizioari buruz ariko dira, 1974 urtean 13 lagunek egin zutena. Diapositiba eta garaiko dokumentuez lagundua izango da.

**Txintzarri abesbatzaren entsegua, gaur elizan**

**ALEGIA** › Txintzarri Txiki eta Txintzarri abesbatzek eguberrietako emanaldia eskainiko dute, hilaren 15ean. Horretarako, gaur eta hilaren 14an izango dituzte entseguak, 21:00etan, Alegiako elizan.

**PSE-EEK Oria ibaia garbitzeko eskatu du****I. Terradillos** Tolosa

Tolosako PSE-EEK kezka azaldu du Oria ibaiaren «zikintasan mailarengatik», eta «berehala» garbitzeko eskaria luzatu du.

PSE-EE «beste behin» ere kezkatuta dago Oria ibaiaren egoerarengatik. Adierazi dutenez, «bertako landaredia ibaiaren ibilguaren erdira iristen da zonalde

askotan». Hala, euri asko egiten duen egunetan landarediarengatik uholdeak izan daitezkeela esan dute, baina presari esker ez dela horrelakorik gertatu.

PSE-EEK Oria ibaiarekin loturiko herriei eskatu die Ura agentziarekin hitzarmen bat sinatzeko garbiketa lan bat egin dezaten, «Hernanik, Donostiak eta Astigarragak egin moduan».

**Auzolanean garbituko dute Olazarreko zubia****I. Terradillos** Areso

Olazarreko zubia eta inguruko karobiak garbituko dituzte auzolanean, larunbatean, hilaren 15ean. Aresoko Udalak eta Andoaingo Burdina taldeak elkarlanean burutuko dute ekimena, «herriko ondare historikoa berreskuratzeke helburuarekin».

Burdina taldeak Leitzaran

ibaiaren arroan dauden ondareak berreskuratzeke ekimen ugari bultzatu ditu Leitzaringuruan, eta orain Aresora joango dira. Olazarreko inguruak garbituz ekingo diote lanari.

Auzolanean aritu nahi duten herritarrek 08:30ean agertu behar harko dute plazan. Udaletik aurrez izena emateko eskatu dute, aseguruak egin ahal izateko.

**kutxabank** **k**

**Etorkizunerako plan ona, bermatuta.**

**%3,5<sup>eko</sup> UTB**

**Kutxa Bi Bermatua plan Berria 2018ko uztaila**

Kutxabankak bazkideari emandako bermea\*: 2018/07/30ean planaren balioa 2013/01/18ko geroi %20,96 (%3,50 UTB) baino txikiagoa bada, falta den aldea ordainduko da.

**+ Kutxabank gordailua urte baterako %4 arte**

Interesak hiru hilero ordainduko dira. Bermatutako Planaren UTB bateratua + Kutxabank gordailua: %3,574

\*Bermeak ordainduko ez diren bitartean, bakoitzaren %1000000 baino gehiago ezin izango da ordaindu. Bermeak ordainduko dira.

**KUTXA BI. e.s.a.**

**ibili dabilzan planak.**

Kutxabank, Bankia, Kutxabank eta Kutxabank



**Kirolak**

↓ **Kirol emaitzak**

**PILOTA**  
**BIGARREN MAILAKO LAU T<sup>ER</sup>DIKO FINALA**  
 Jon Jaunarena 22  
 Untoria 20

**BINAKAKO ERREMONTE TXAPELKETA**  
**Bosgarren jardunaldia**  
 Zeberio II.a-Aizpurua II.a 40  
 Oñatz-San Migel 38

**Sailkapena**  
 1. Endika-Etxeberria III.a 17 p  
 2. Oñatz-San Migel 13 p  
 3. Ezkurra-Olazar 12 p  
 4. Urriza-Barrenetxea IV.a 12 p  
 5. Juaristi-Ion 11 p  
 6. Zeberio II.a-Aizpurua II.a 11 p

**NAPAR PALA TXAPELKETA**  
**Bigarren jardunaldia**  
**Elite maila**  
 Agirre-Bordagarai 30  
 Irazustabarrena-Arozena 17  
 Mendizabal-Contin, atsedena

**Lehen maila**  
**Garmendia-Aristorena** 30  
 Judith-Mendizabal 20

**ARETO FUTBOLA**  
**HIRUGARREN MAILA**  
**12. jardunaldia**  
 Tolosala-Bilbo- 3-3  
 Laskorain-Goierrri- 4-5  
**Egintza-Inter Eder Kafetegia** 7-2  
**Ibarra-Aurr. Vitoria** (atzeratuta)

**Sailkapena**  
**1. Ibarra** 28 p  
 2. Bilbo CFS 24 p  
 3. Aurrera Vitoria 24 p  
**4. Tolosala Hirukide** 22 p  
 5. Goierrri 22 p  
 6. Soloarte 22 p  
 7. Inter Eder Kafetegia 22 p  
 8. Santurtzi 19 p  
 9. Zarautz 18 p  
 10. Sestao 16 p  
 11. **Laskorain** 14 p  
 12. Buruntza 12 p  
 13. **Egintza** 10 p  
 14. Mallabia 10 p  
 15. San Jorge 9 p  
 16. Gora 0 p

**Hurrengo jardunaldia**  
 Zarautz - **Ibarra**  
 Inter Eder Kafetegia - **Laskorain**  
 Goierrri - **Tolosala Hirukide**  
 Sestao - **Egintza**

**FUTBOLA**  
**ERREGIONAL OHOREZKOA**  
**12. jardunaldia**  
 Tolosa CF - Bergara 0-1

**Sailkapena**  
 1. Hernani 33 p  
 2. Real Union 27 p  
 3. Bergara 25 p  
 4. Aretxabaleta 23 p  
 5. Oiarzun 23 p  
 6. Touring 22 p  
 7. **Tolosa C.F.** 21 p  
 8. Berio 20 p

**Hurrengo jardunaldia**  
 Bergara - **Tolosa CF**



Berrobiko XXI. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketako finalistak. HITZA

## Berrobiko frontenis txapelketako antolatzaileak, «gustura»

Giro ona izan dela eta emakumezkoen parte hartzea handitu dela nabarmendu dute, besteak beste

**Imanol Garcia Landa** Berrobi

Berrobiko XXI. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketako antolatzaileak «gustura» daude lehiaketak emandako emaitzarekin: «Giro ona izan da txapelketan eta finalak ikustera jende dezente etorri da». Aurten berritasuna izan da bikote mistoen lehiaketa eta datorren urtera begira ere horrekin jarraitzeko asmoa azaldu dute. Bestalde, emakumezkoen parte hartzea handitu egin dela nabarmendu dute eta herriko parte hartzaile gazteek jauzi bat egin dutela.

Emaitzei dagokionez, Edu Lobato eta Pitillasek irabazi dute mutilen binakako lehiaketa. Bigarrenak Xabi Zubiria eta Odei Agirre izan dira, hirugarren Ion Jauregi eta Julen Izagirre, eta laugarren Iban Zabaleta eta Iban Aranburu. Finala borrokatua



Mutilen binakako txapelketaren finalaren une bat. IGL

izan zen, baina pixkana ikusi zen azkenean nork eramango zuen garaipena.

Bikote mistoen lehiaketa Xabi Zubiriak eta Leire Jauregik irabazi dute, bigarren izan dira Nagore Lizardi eta Iker Lizardi, hirugarren Sixto eta Elena Artieda, eta laugarren Oihane Bergara eta Iker Elustondo. Emakumezkoen binakakoan, Rakel Astiz eta Elena Artieda izan dira irabazleak, bigarren Oihane Bergara eta Leire Jauregi, hirugarren Aran Rodas eta Nagore Lizardi, eta laugarren Naiara Onsalo eta Arantxa Atxukarro.

Azkenik, mutilen binakakoan Odei Arregi izan zen txapeladuna eta Xabi Zubiria txapeldunordea; hirugarrena Mikel Goitia izan zen eta laugarrena Unai Mendia. Finalan, binakakoan batera aritutako Arregi eta Zubiria elkarren aurka aritu ziren. Arregik hasieran abantaila hartu bazuen ere, Zubiria gerturatu zen eta azkenean oso estua izan zen Arregirentzat garaipena.

Finalak jokatu ondoren, finalistek, finalerdietara iritsitakoek, antolatzaileek eta izena eman zuten beste hainbatek afaria egin zuten giro ederrean.

## Gabonetako lehiaketan emaitza hobea aizkoran harri jasotzen baino

**I. Garcia Landa**

Egur Sport enpresak antolatutako Gabonetako Harri Jasotze Lehiaketan ezin izan du aurrera egin Josetxo Urrutia leitzarrak. Urruzunorekin batera Izeta III.a eta Izeta IV.a aurrean aurka lehiatu da, baina guztira 9 altxaldi gutxiago lortu dituzte: Urrutia-Urruzunok 102 eta Izetarrak 111.

Gabonetako Aizkora Lehiaketan, berriz, Jesus Mari Mujika ibartarrak finalerako txartela lortu du Jesus Angel Zubiagaren aurka jokaturako finalerdian. Lan guztiak amaitzeko Mujikak 13 minutu eta 12 segundo behar izan zituen, Zubiagak baino minutu bat eta segundo bat gutxiago. Finalerako aurkaria abenduaren 16an Etxalarren jokaturako den beste finalerdiaren ondoren jaingoko du aizkolari ibartarrak.

## Ane Iriarte billabonatarrek lehen postuan jarraitzen du pista sarian

**I. Garcia Landa**

Gipuzkoako Pista Sariaren barruan, bosgarren jardunaldia jokatu dute asteburuan. Emakumezkoetan Ane Iriarte (Limousin) billabonatarrek jarraitzen du lehen postuan, eta orain 80 puntu ditu. Leire Olaberria (Fullgas.org) ikaztegiatarra, 63 punturekin, hirugarrena da. Maddi Amondarain (Limousin), berriz, bederatzigarrena da, eta orain 40 puntu ditu.

## Asteburu gazi-goza izan da areto futboleko

Egintzak irabazi egin du, Tolosala Hirukidek berdindu, Laskorainek galdu eta Ibarrenen partida atzeratu egin da

**I. Garcia Landa** Tolosa

Era guztietako emaitzak lortu dituzte areto futboleko Hirugarren mailako eskualdeko taldeek. Villabonako Egintza taldeak irabaz-

tea lortu du, 7-2koa lortuz Inter Eder Kafetegia taldearen aurka. Beharrezkoa zuen horrelako garaipena, oraindik azken postuetan baitago taldea. Tolosala Hirukidek berdinketa garrantzitsua lortu du Bilboren aurka, 3-3 eginez etxean. Tolosako Laskorain taldeak 4-5 galdu du Goierriren aurka. Azkenik, Ibarren eta Aurrera Vitoriak jokatu behar zuten partida atzeratu egin da.

Laskorainek, sei astetan porrotik jaso gabe egon eta gero, pasa-

den larunbat goizean zakuan punturik pilatu gabe errenditu behar izan zuen. Ikastolako mutilek, duela urte asko ez, Gipuzkoako areto futboleko derbi ohikoenetakoa zena errepikatu zuten Goierriren aurka eta azken segunduetan jasotako gol baten ondorioz galdu zuten.

Tolosalaren kasuan, zutoinek eta aurkariaren atezainak ekidinduta zuten garaipena. Zaletu ugari joan ziren sailkapeneko goialdean dauden bi talderen arteko par-

tidua ikustera. Izan ere, jardunaldiaren aurretik eta honen ondoren ere, Bilbo F.S. hirugarren postuan dago eta Tolosala bosgarrenen.

Lehen zatia ikusgarria suertatu zen eta bai Tolosalak eta Bilbok ere aukera ugari sortu zituzten. Bigarren zatian Hirukidekoak izan ziren nagusi. Aukera asko sortu zituzten, eta markagailuan bitan aurreratzea lortu zuten. Bilbotarrek azken minutuan lortu zuten hiruko berdinketa.

## Zeberio eta Aizpurua, Binakako Erremonte Txapelketatik at

I. Garcia Landa

Patxi Zeberio elduaindarrak eta Xanti Aizpurua tolosarrak ez dute lortu Binakako Erremonte Txapelketako finalerdietara sailkatzea. Azken partida irabazi arren, sailkapeneko azken postuan geratu dira, zehazki seigarren, eta, beraz, finalerdia jokatzeo aukera ematen zuten lau lehen postuetatik kanpo. Azken partidaren 40-38 irabazi diete Oñatz eta San Migelari, baina ez da nahikoa izan. 11 puntu eskuratu dituzte Zeberio II.ak eta Aizpurua II.ak, laugarren postutik bi puntutara. Horrela geratu da ligaxkaren sailkapena: Endika-Etxeberria III.a, 17 puntu; Oñatz-San Miguel, 13 puntu; Ezkurra-Olazar, 12 puntu; Urriza-Barrenetxea IV.a, 12 puntu; Juaristi-Ion, 11 puntu; eta Zeberio II.a-Aizpurua II.a, 11 puntu.

## Iera Agirre Napar Pala Txapelketako finalerdietarako sailkatu da

I. Garcia Landa

Iera Agirre leitzarrak eta bere bikotekide Bordagaraiak 30-17 irabazi diote Irazustabarrena eta Nagore Arozena lizartzarrari, Napar Pala Txapelketako elite mailan Leitzan jokatutako partidaren. Beraz, Agirrek eta Bordagarai finalerdietarako sailkapena lortu dute. Lehen mailan, Ainhoa Garmendia alegiarrak eta bere bikotekide Aristorenak ere finalerdietarako sailkatu dira, 30-20 irabaziz bere partida.

## Jon Jaunarena ◊ Pilotaria

Finala gogorra izan zen, baina esfortzuak merezi zuen: Jon Jaunarena leitzarra da Lau t'erdiko Txapelketaren irabazlea bigarren mailan. Hurrengo urtean lehen mailakoan ariko da.

# «Hiru txapelak lortzea handia da, ez da askotan horrelakorik errepikatzen»

Imanol Garcia Landa Leitza

Pilotaren historian leku esanguratsua du Jon Jaunarena leitzarra: lehenengo pilotaria da bigarren mailan hiru txapelak lortzen dituen urte berean. Binakakoa eta buruz burukoa lortu ondoren, larunbatean eskuratu zuen hirugarrena, lau t'erdiko txapela, Untoriari 22-20 irabaziz.

**Nolakoa izan zen finala Untoriaren aurka?**

Puntu batzuk egin nituen huts handi samarrak, baina finaletan tentsio puntu batekin ateratzen zara eta normala izaten da; orokorrean nahiko gustura.

**Aurtengo hirugarren finala zen eta aurretik makina bat finaletan izan zara. Hala ere, urdurizun den finaleko egunean?**

Finalak jokatu arren, ez zara ohitzen, eta beti aurretik urduritasuna izaten da eta tentsio asko. Behin partida hasita, urduritasuna ere izaten da, baino gutxiago. Finalaren aurreko egunetan urduritasuna izan nuen, eta partidaren finalean ere tentsio gehiago bizitu nuen. Azkenean, nolabait txapela lortu genuen.

**Abantaila lortu zenuen hasieran, 7-0eko markagailua lortuz. Gero partidazaildu egin zen.**

Ongi hasi nintzen, eta berak ez zuten hainbeste jokatu. Gero, berak ere hobeto jolastu zuen, tanto asko gogortu zizkidan, eta asko bere aldera joan ziren. Hamaika eta hamabi bera aurreratu egin zen, eta tanto horiek oso gogorrrak izan ziren eta dezente sufritu nuen, eta bukaera aldera erabaki genuen gehiago arriskatzea, eta aurrera egin genuen. Pare bat tanto onak egin nituen, gero huts batzuk ere etorri ziren, baina



Abel Barriola eta Jon Jaunarena, garaipena ospatzen. HITZA

abantaila hartu nuen. 21-17 ari girela, aukera ona nuen irabazteko, baina sakez falta egin eta partida zaildu egin zen; azkenean, nolabait irabazi ahal izan nuen.

**Txapela arriskuan ikusi zenuen partidanzehar?**

Askotan ikusten duzu txapela arriskuan. Tantoa irabazi duzun bezala, galdu dezakezu, baina esperantza ez da behin ere galdu behar, beti aurrera segi eta segi egin du. Txapela beti ikusten duzu arriskuan, eta gainera horrela izan behar du, konfiantzarik ez hartzeko.

**Abel Barriola herrikidea izan zenuen botilero finalean. Zer esaten zizun partidanzehar?**

Berarekin ikaragarri gustura egon naiz, lan oso ona egin duela uste dut. Denbora guztian pilota-

ri erasotzeko esaten zidan, agresiboago jokatzeo, eta aukerak sortzen zitzaidanean, jokaldia egiteko. Oso ondo eskatu zituen atsendaldia, nekatuta nengoanean eta taktikoki ere komeni zenean... Zuk ikusten ez dituzun gauza asko ikusten ditu berak. Lan asko egin zuen eta asko eskertzen diot txapela.

**Nori eskaini diozu txapela?**

Amonari eskaini diot. Aurreko astean hil zen eta berari eskaini diot.

**Historian sartu zara, hiru txapela urte berean lortuz. Zer suposatzen du horrek?**

Niretzako oso polita da, hiru txapelketa jokatu eta hirurak lortzea. Lehengo urtean nahiko gaizki ibili nintzen, eta aurten hirutik hiru lortzea... Ezin da gehiago eskatu. Niretzako oso handia da, ez

da horrelakorik askotan errepikatzen.

**Datorren uretan, beraz, lehen mailako lau t'erdiko txapelketa jokatuko duzu.**

Bai, lau t'erdikoan eta buruz burukoan irabazita, hurrengo urterako plaza hori daukat, eta oso polita izango da. Ilusio berezia egiten dit lehen mailan jokatzea.

**Txapelketez aparte, nola joan da aurtengo denboraldia?**

Txapelketak borobilak atera zaizkit, hirurak irabazita. Beste partidetan denetatik izaten da: partida onak eta partida txarrak. Boladak izaten dira eta ea hemendik aurrera bolada onak etortzen diren eta hobetzen joaten naizen.

**Datorren denboraldian espero duzu jaialdietako partida nagusi gehiago jokatzea?**

Ni uste dut hori pixkana etorriko dela. Partida onak egiten badituzte eta ongi jokatzen badituzte, nik uste dut aukera etorriko dela.

**Zer moduz joan ziren txapela lortzearen ospakizunak? Frontoian bertan ere jarraitzaile ugari izan zenuen.**

Frontoian festa izan zen, eta argazkiak atera genituen. Gero afaria egin genuen eta ondoren herrian atera ginen. Horrelakoetan ospakizunak oso ondo ateratzen dira.

**Leitzan ospakizunak jarraipena izango ote du Bengoetxarekin datorren asteburuan?**

Nik uste dut Bengoetxea aste honetan ongi jarriko dela, ongi entrenatuko dela, eta espero dut igandean partida handi bat jokatzea eta txapela herrira ekartzea. Nire txapelaren ondoren polita izango da berak bestea ekartzea, herriarentzat polita izango da. Horren esperoan gaude.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	11º
HOTZENA	7º

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### DEIALDIAK


- **Tolosa.** Larramendiko lurperatzearen inguruko bilera antolatuta du gaurko udalak. 19:00etan elkartuko dira udal txeko batzar aretoan. Bileran lurperatzearen obren egutegiak, trafikaren antolaketak, eta urbanizazio proiektuaren hobekuntzez hitz egingo dute. Alkatetik eta Hirigintza Batzordeko lehendakariak, obrako ingeniariak, obrako arkitektoak eta udaltzain buruak parte hartuko dute.
- **Alegia.** Gaztetxearen 25. urteurrena dela eta, Karlos Zurutzak *Gerraren beste aurpegiak* hitzaldia eskainiko du, gaur, 19:00etan.
- **Alegia.** Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek eguberrietako emanaldia eskainiko dute abenduaren 15ean, arratsaldean, ohi baino astebete lehenago. Egun horretan, kon-

zertuaren amaieran, Haendelen *Alleluia* abestuko du Txintxarri abesbatzak eta obra hori abesteko, abesbatza kantari ibilitakoak elkartu nahi dituzte. Obra errepasatu eta prestatzeko entseguak antolatuta ditu abesbatzak. Lehen entsegua gaur izango da 21:00etan Alegiako elizan.
- **Alegia.** Alegiako Intxurre elkartetik azaldu dutenez, gaurtik hasita, asteartero Euskal Mendi Federazioko agiria egiteko aukera izango da elkartearen egoitzan, 20:00etatik 21:15era.
- **Abenduaren** urtarrian eta otsailaren egin ahal izango da agiria.
- **Villabona.** Udalak herritarren ekarpenak jaso nahi ditu 2013ko aurrekontuei begira, eta horretarako udal ordezkariak eta herritarren bilerak egingo dituzte udaletxean, lehenengo gaur izango delarik, 10:00etatik 13:00etara. Era berean, herrita-

rrek ekarpen orriak jaso dituzte etxeetan eta herriko hiru gunetan utzi daitezkeela gogoratu dute, udaletxeko sarreran, Olaederra kiroldegiko arreta gunean eta osasun etxeko informazio eta arreta gunean.

### ERAKUSKETAK

- **Larraul.** Koldo Jauregiaren aho soinu bilduma museo etnografikoan, urte bukaerara arte.
- **Tolosa.** Marioneta Masgrauren 110 lan biltzen dituen *Bidaia bat txotxongiloen mundura* erakusketa, Topic zentroan.



## Musika barrokoa Arimaz-en eskutik

Tolosako Kamera orkestrak emanaldia eskainiko du abenduaren 15ean Santa Klara elizan

**Rebeka Calvo** Tolosa

Arimaz kamera orkestrak Eguberrietako kontzertua eskainiko du Tolosako Santa Klara elizan, abenduaren 15ean, larunbatean, 20:15ean.

Kepa Martinez de Albenizek

zuzenduko du emanaldia eta Corelli eta Charpentierren lanak interpretatuko dituzte *Musika barrokoa Eguberrietarako* izenpean.

Corelliren *Concierto Grosso no. 8 del Op. 6* eta *Fatto per la notte di natale* eta Charpentierren *Nöel pour les instruments H. 531* eta *H. 534* joko dituzte.

Italiako eta Frantziako konpoztariek zuzendutako kontzertua eskainiko du *Silent Night, In Dulci Jubilo, Birjiña Maite, Errege Jaia* eta *Olentzaro* ere eskainiko ditu Tolosako kamera orkestrak.



Arimaz kamera orkestrako talde irudia. HITZA

## Agurrak

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**Mauka** GAIURKO ESKAINTZA

**Euskal Selekzioa-Bolivia**  
2 sarrera erosita, hirugarrena doan!

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOA  
Calle Gaurri Kalea 11, 10100  
48900, BILBAO  
Tel. 944 71 11 00  
www.mauka.eu

**www.mauka.eu** **berria**

**Animatu** euskal selekzioa BERRIaren eskutik

SARRERAK OSORRAGARRI  
Abenduaren 11tik aurrera

21 sarrera erosi, eta hirugarrena DOAN.  
Euskal selekzioa eta Bolivia  
elkarturako abenduaren 21ko Astearteko  
eranduneko jaiotako duten futbol partiduaren Astearteko MAUKA.

Sartu [www.mauka.eu](http://www.mauka.eu) atarian  
eta GOZATU ABANTALEZ

**berria**